


Noaia !!


www.noaia.com



Akabo Santixelak,
begibistan dira Santioak



Asier Huegun,
Yemen



Gari Udabe,
New York



Bidaiatu?

Beldurrik gabe, baina arduraz

Aitor Egileta,
India

Kaixo noauakide!
2007ko kuota kobratuko dugula jakinarazi nahi dizuegu.

2007ko uztailearen 10ean

2007ko kuota kobraketa, **uztailearen 20an** hasiko bezala, **36€**takoa izango da. Beraz, **36€** kobratuko zaizue datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko haimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrantean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Hauxe da gure kontu korranteko zenbakia:

Gipuzkoa Donostia Kutxa: 2101 0069 15 0010543064

Besarkada bat eta hurrengo arte.

OHARRA: Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta lasterren jakinaraztea eskertuko genizuke. Aldi berean, edozein zalantza argitzeko guregana jo dezakezu.



www.noaua.com



usurbildarron zerbitzura



Badok Amairu !!

Maialen Unanue: "Liburu bat, SPrako tranbia"

Izen abizenak:

Maialen Unanue Irureta.

Adina: 19.

Helbidea: Atxegalde.

Lanbidea: kazetaritza ikaslea.

1. Jakirik gogokoena.

Amaren patata tortilla.

2. Ohitura txarren bat.

Dena azken unerako uztea.

3. Zer gordetzen duzu sakelatan?

Gehienez klinexak, gainerakoa poltsan.

4. Zertan berpiztuko zinateke?

Zaldi batengan.

5. Zeri diozu beldurra?

Bakarrik gelditzeari.

6. Miresten duzun pertsona.

Familiakoak, lagunak eta mutila.

7. Ezin zaitezke bizi...

Parranda gabe.

8. Egindako errokeria handiena.

Oraindik egiteko dut.

9. Liburu bat.

"SPrako tranbia".

10. Film bat.

"Noviembre".



11. Leku bat.

Urdaibai.

12. Herriko lekurik ederrena.

Atxegalde.

13. Urtaro bat.

Uda.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredezakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LARUNBATEAN, BIZIKLETA MARTXA _____ **5. OR.**

BIDAIARIEKIN SOLASEAN _____ **6. OR.**

LANGABETUENTZAT IKASTAROAK _____ **9. OR.**

JAIETAKO AZKEN TXANPA, IRUDITAN _____ **10. OR.**

ESKUBALOI TALDEAK, GRANOLLERSEN _____ **13. OR.**

PUNTU BIDEZKO GIDA-BAIMENA _____ **14. OR.**

GAZI, GOZO, GEZA _____ **18. OR.**




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Kabezudo pelao

Deabru eta Aker gau luzea pasa eta gero, eguzkiaren lehen printzak Artzabalgo parkera erori direnean, Laukoteko terrazan eseri eta beste erronda bat atera dute. Hamaikagarren jintonikak Deabru gogor jo eta aspaldian gordeta zuen kontua frenorik gabe ezdarriko loturatik askatu du eta hitzen bidez haizetara zabaldu da:

-Erraldoi poxpolina etorri zenetik ez naiz berdina, bere soineko gorriak irudikatzen dituen formak. Zapi zuri horrek hain galanki apaintzen duen buru perfektua, simetrikoa,... Txokoaldeko buztin tailerretik ezin horrelako esmalte paregabea atera, hain dirdiratsu eta hain garbia, gardena. Zein kartoia izan arren portzelana finenaren erdurik gorenena bihurtua. Papermatxezko ezpain gorri dotore horiek, Migel Angelek zizelkatutako marmola bezain nabaria eta lisatua. Begi marroi pare hori, argiak eta argitsuak, zuzenak eta alaiak, eguzkiak sanjoan goizean egiten dituen saltoen moduko dirdiradunak, itzelak, paregabeak, barruraino sartzen zaizkit, eta nire kartoizko bihotza taupadaka jartzera iristen dira, taupa,... taupa... taupa... taupataupa..., pianistarik iaioenak ere musikatzera iritsiko ez litzateken doinuarekin.

-Esaten dutenez sanjoaneko eguzkiak dantzan harrapitzen duena dantzan mantentzen du urte osoan,... Moztu dio Akerrek, ondoren kalimotxoari zurrutada bat eta erretzen ari den horri hasperen bat eman dio, kea Deabruren aurpegi handira botaz. Baina Deabruren konfesioa etenezina da dagoeneko eta ezer aditu ez balu beza-

la jarraitu du:

-Duen mugimendua, dantza graziaz betea. Buelta osoa ematen duenean besoak gorputzetik askatuz, airean zabalduz sortzen duen zirkunferentzia perfektua konpasarekin eginda dirudi, borobila, zehatza eta musikarekin batera erritmoz betea. Zirkunferentzi horren radioen barruraino sartuko nintzateke, besarkatzen utziz. Eta barruan egonda belarriraino igo nahiko nuke, goxoki, haize leun batez, maite zaitut xuxurlatzeko.

Isilunea. Akerrek beste zurrupada bat kalimotxoari eta beste hasperen bat erretzen hari den horri. Deabruk buruhandia jaitsi du, makurtuta. Zelofan gardenezko malko bana isuri du begi bakoitzetik, eta jarraitu du:

-Baina ezin dut, ez naiz iristen, bera erraldoi ni buruhandi, bera zeruan ni berriz infernuan. Ni, Usurbilgo buruhandirik beldurgarriena, zekenena, itsusiena. Ume txiki eta ez hain txiki guztien amesgaiztorik biziena, gorria, lizuna, deabrua! Maitasunak harrapatu nau, maitemina. Kartoizko izaki lerdo hau!

Isilune bat egon da, Deabruk ez daki Akerrek zeozer jarraitu duen ere, eta badazpada galdegin dio:

-Zer, melankoliko al nago?

Akerrak sorbaldaren gainetik besoa luzatu dio:

-Ez, megalkoliko! Gaia aldatuz, entzun dut Nafarroako herri batzuetan buruhandiek maskuri batekin jo beharrenean, 20 zentimetro luzeko larruzko tira batzuekin jotzen dutela, zer iruditzen datorren urteko santixabeletako...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztaileak 20. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaileak 16.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindégia - Gozotégia

LABE-GOXO

Larunbatean, Donostian, bizikleta martxa “Errausketarik ez!” lemapean

Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak antolatu du larunbateko bizikleta martxa. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Donostiako Boulevardetik. Zubieta Lantzen plataformak, bestetik, errausketaren aurkako kartel lehiaketa antolatu du.

Zubietako frontoi berriaren kanpo paretan, errausketari oposizioa eta alternatiben, birziklapenaren eta herri osasuntsuago baten aldeko aldarrikapena isladatu nahi da. Mural baten bitartez egin nahi du Zubieta Lantzen plataformak. Kartel lehiaketa jarri

dute martxan eta irabazlea izango da muraletan irudikatuko dena.

Lehiaketako oinarriak

Edonork har dezake parte.

Neurria: Kartela A3 neurrian aurkeztu behar da.

Epea: Uztailaren 28a (egun hori barne).

Tokia: Alamandegiko buzoian (Herri Batzarraren egoitza).

Saria: Diploma, errausketaren aurkako aportazioaren satisfakzioa eta muraletan irudikatuta ikustea.

Antolatzailea: Zubieta Lantzen.

Uztailaren 29an Zubietako frontoian



ZUBIETA LANTZEN EK
ERRAUSKETAREN AURKAKO
KARTEL LEHIAKETA ANTOLATU DU.

erakutsiko dira lan guztiak, eta arratsaldeko 20:00etan irabazlearen izena emango da aditzera, frontoian bertan.

Ika-mika !

Aste bukaera da eta irten gara herri-rik. Gure nahia beraiek ikusi, nola dauden jakin, solasaldi laburra (45 minutu gehienez) eta joan etorria ondo egitea da. Izan ere Usurbildik 1.060 kilometrotara goaz eta bidean hamaika ordu inguru egingo ditugula diogu elkarri. Gau osoa daramagu bidean eta eguna nola argitzen duen ikusi dugunez, bide ertzeko tabernan gosaltzea erabaki dugu, sartu eta goizegi denez nahiko leku daukagu indarberritzeko. Denbora daukagu eta mugimendu gutxik gorputzean eragin digun zama arintzeko oinez joan etorriak egin ditugu giharrak mugituz eta azkenean burnizko atearen aurrean gaude.

Atea zabaldu denean sartu, patrikak hustu eta lehengo detektagailuak pi, pi, egin didanez sandaliak erantzi behar izan dituzte eta barrura. Gure agiriak bertan utzi norena goazen azaldu eta bigarren detektagailuari lehenengoari emandako azalpen guztiak eman ondoren kristala eta burnia tartekatzen diren beste aldean ikusi dezakegu laguna. Lokutorio guztiak euskaldunetz beteta daukagu eta talde polita osatzen dugu.

Hamabost egun dira bat-batean ama hil

zitzaiola. Ezin izan zuen ikusi. Berak ezin zuen sinetsi ama horrela joatea. Bisitara joaten zitzaion eta indartsu zebilen. Bere hutsunea nabaritzen zaió Mikeli. Orain 16 urte atxilotu zuten eta sei hilabeteetara Aita hil zitzaionez bere gorputza ikustea eskatu zuen baina ez zioten utzi. Berak erakusten digun indarra deigarria egiten zaigu eta indarberritzen gaitu. Egoera gogor horietan bidali genizkion animoak eskertu egiten dizkigu eta konturatu gainerako solasaldia bukatu da eta laguna ezkututzen digutenez gu kanpora goaz sentimendu gazi-gozoekin. Kanpoan Euskal Herrietik etorri behar izan dugunok elkartu, zer moduz ikusi ditugun elkarri esan eta itzulera ondo egitea desiratuz sakabanatzen gara arratsalde hasieran.

Itzulerako bidean ordu eta erdira beste bi errepresaliatuekin egon nahi dugunez, aurreko espetxean egin duguna errepikatzen dugunean burnirik ez duen kristal zabal baten beste aldean ikusi ditzakegu Maritxu eta Ion arratsaldeko lauretan. Oraingoan bakarrik gaude eta solasaldiari ekin diogunean konturatzeko denbora joan da eta aurreko espetxean bezalaxe

ezkutatu dizkigutenez, gu kanpora goaz itzulerako –orain bai – bideari ekiteko.

Kotxean sartu eta euskaldunekin izan dugun solasaldiaz hitz egiten dugu, eta nola ez, honela ibili beharraz. Ehunka euskaldun gabiltza une horretan horrela. Batzuk (gu bezala) Andaluzian, besteak Galizian edo Pariseko kaleetan. Guztiok helburu berdinarekin. Berdin dio udara edo negu izan, txingorra, elurra, euria, herriko festak edo opor garaia izan.

Berdin dio kanpoko politikarien erasoaren zama jaso behar izan. Berdin dio sakabanaketaren aurka daudela esan eta ezabatzeko ezer egiten ez duten “bertako” politikarien axolagabekeria jaso. Berdin dio joan-etorrian 30 orduetatik 24 kotxean, autobusean edo trenean pasa behar izan. Berdin dio kanpoko eta bertako politikarien faltsukeriak erasotzen gaituen.

Gu, amaigabeko bide horietan hil zaizkigun (edo dizkiguten) senideekin bat egiten dugu eta senide eta lagun errepresaliatuak bakarrik ez ditugula utziko oihukatuz gero arte esaten diegu.

M. B. B.

Asier Huegun hiru aldiz izan da Yemenen

“Han izan naizenean oso harrera beroa egin didate”

Lasarte-Orian jaioa da baina Usurbilen bizi da. Pedagogia irakaslea da EHUn eta duela urte batzuk arabiera ikasteari ekin zion. Arrazoi horregatik joan zen Yemenera 2004 urtean. Geroztik, beste bitan izan da han. Joan etorrian, lagun handiak egin ditu Yemenen. “Hango jendearekin hitz egiteko aukera izan dut eta eurak ere oso haserre daude. Ez daude batere ados gertatu denarekin”, aitortu digu Asier Huegunek.

NOAUA. Desatseginak dira Yemendik jaso ditugun albisteak.

Asier Huegun. Sorpresa handiarekin eta harrিতuta jaso nuen albistea. Gainera, gertuko jendea da tartean hil dena. Bidegabekeria latza izan da. Yemeneko jendearekin hitz egiteko aukera izan dut eta eurak ere oso haserre daude. Ez daude batere ados gertatu denarekin.

ASIER HUEGUN

“Nik orain bidaiatzaile-erosita izango banu, ni joan egingo nintzateke. Beldurrik gabe, baina arduraz”

N. Orain arte ez genuen Yemen ezagutzen. Non zegoen ere ez genekien. Aurrerantzean, herrialde hori Al Kaedarekin lotzeko joera egon daiteke.

A. H. Ez genekien zer zen, non dagoen, ze arazo dituen, nolakoa den jendea... Arrisku handia dago horrekin. Berri hori ateratu da eta listo. Ez dago gehiago. Horrek ere mintzen zaitu. Eta herrialde guztiek bezala, argi-ilunak ditu Yemenek. Baditu gauza oso onak; han izan naizenean oso harrera beroa egin didate, adibidez. Baina bestetik, arazo ekonomiko

latzak ditu, politikoki oso desegonkorra da, arazo erlijiosoak ere badituzte, analfabetismo handia dago... Arazo sozialak ere badira: herri batzuetan argirik ez dago, urik ere ez.

N. Turismoa diru iturri izango da yemendarrentzat.

A. H. Azkenaldi honetan, gero eta jende gehiago joaten zen hara. Badu bere erakargarritasuna, gurekiko oso ezberdina baita gauza askotan. Turismoa, noski, bada diru iturri inportante bat eta badirudi atentatu honek moztu egingo duela diru iturri hori. Egoerari buelta emateko urte batzuk beharko dira.

N. Lagunak ere badituzu han. Eurak ere txundituta hartuko zuten albistea, ezta?

A.H. Bai, bai. Haiak hala esaten didate, “zuk jendeari esan gu nolakoak garen benetan, ez gaudela ados honekin”.

N. Hirutan joan zara Yemenera arabiera ikastera. Nolatan arabiera?

A. H. Lehen aldiz 2004an joan nintzen, beste hiru lagunekin batera. Hilabete eta erdi pasa genuen bertan. Gure kabuz joan ginen. Interesgarria iruditu zitzaidan bertako kultura bertako hizkuntzarekin ezagutzea. Geroztik, beste bitan izan naiz bertan, eta eskola batean egon naiz arabiera ikasten. Asteburuak aprobetxatzen nituen batetik bestera bidaiatzeko. Bertako jendearekin bidaiatzen nuen autobusean, edo taxiak beraiekin konpartituz...

N. Zer esango zenieke hara bidaiatzeko asmoa dutenei?

A. H. Nik bidaiatzaile-erosita edukiko banu, Yemenera edo beste tokiren batera, ni joan egingo nintzateke. Ez diot inori aholkurik emango baina ni joan egingo nintzateke. Eta



ASIER HUEGUN ARABIERA IKASTERA
JOAN DA HIRUTAN YEMENERA.

lasai joango nintzateke; beldurrik gabe, baina arduraz.

“Gobernuekin daude haserre, ez herritarrekin”

NOAUA. Iranen, Sirian eta Libanon ere ibili zara. Herri horietan, amerikarrekiko eta europarrekiko jarrera aldatu egin dela uste al duzu?

Asier Huegun. Jendeak ezberdintzen badaki. Euskalduna zarela esaten duzunean askok ez gaituzte ezagutzen, baina Espainia aipatzerakoan Zapatero ezagutzen dute eta badute horrelako sinpatia bat berarekiko, Iraketik tropak ateratu zituelako, gero Afganistanera eramanez bazituen ere, baina tira... Aznar ere ezagutzen zuten eta ez zuten gustuko. Bush ere ez zaie batere gustatzen, ezta Blair ere. Gobernuekiko dute jarrera hori baina jendearekin ez dute horrelako tratorik. Akaso hemen ezjakintasun handia dago eta alde horretatik askoz itxiagoak gara. Informazioa desitxuratu egiten da hemen eta denak zaku berean sartzeko joera dugu.

Gari Udabe hiru hilabeterako joan da New Yorkera

“Segurtasuna ikusi, sumatu eta usaindu egiten da hemen”

Ingelesa ikastera abiatu zen Amerikako Estatu Batuetara eta hiru hilabete egingo ditu bertan. New York hirian zela izan zuen Yemengo atentatuaren berri. Irailaren 11koa eta gero, segurtasun neurriak handiak dira New Yorken. Hala ere, “ikasle bizimodurako izugarri hiri interesgarri eta eroso dela esango nuke”, aitortu digu Gari Udabek.

NOAUA! Asier Huegun hirutan joan da Yemenera arabiera ikastera. Zu, berriz, New Yorken zaude ingeleza ikasten. New York bezalako hiri batek ondo hartzen al ditu zu bezalako ikasle-bisitariak?

Gari Udabe. Baietz esango nuke. Ni behintzat oso eroso sentitu naiz orain arte. Horretara egina dago New Yorkeko eguneroko bizimodua. Nomadaz betetako hiria da: pertsonen joan etorria izugarria da hiri honetan. Batzuk ikastera, besteak lanera edota denboraldi baterako bizitzera datoz. Eta hiria horretarako prestatua dagoen bezala, baita bertako hiritarrak ere.

GARI UDABE

“New Yorken sartzeko baino segurtasun neurri zorrotzagoak pasa behar izan nituen Londonen”

Ikasle bizimodurako izugarri hiri interesgarri eta eroso dela esango nuke. Eta baita beste gauza askotarako ere.

N. Dorre bikiena eta gero, bidaia-tzearen kontua asko aldatu da. Gogortu egin dira segurtasun neurriak. Zuk ere sumatu al zenuen hori? Segurtasun aldetik, eguneroko bizitzan ere sumatzen al da?



GARI UDABE ERE, HIZKUNTZA IKASTEKO ASMOZ JOAN DA NEW YORKERA.

G. U. Hona hegazkinez etorri nintzenez, Ameriketako Estatu Batuetara sartzeko baino segurtasun neurri gehiago eta zorrotzagoak pasa behar izan nituen Londonen. Hona sartzerakoan, berriz, hatz-markak hartzen dizkizute, eta argazki bat atera. New York hiria, berriz, orain ezagutu dut. Ez dakit atentatuen aurreko hiria nolakoa zen. Baina gaur egun segurtasuna ikusi, sumatu eta usaindu egiten da hirian. Izugarria da polizia, militar eta segurtasun indarren presentzia kalean. Hiriko tokirik esanguratsuenak 24 orduz daukate babestuta. Toki askotara sartzeko nortasun agiriak eskatzen dituzte. Tren geltoki nagusietan, subway-an (metroa) eta halako lekuetan etengabe dago polizia.

Adibidetarako: "4th of July" ospatu berri dute hemen. Gauen su artifizialen ikuskizuna izaten dute. Haiek ikusteko lekua hartzera joan ginen, eta bost polizia kontrol pasa behar izan genituen, eta denetan soinean generaman poltsa ireki eta barrukoa erakutsi behar izan genuen.

“Oso gutxi hitz egiten da Iraken gertatzen ari denaz”

NOAUA. Yemengo atentatuarena nola bizitu zenuen han? Hedabideek oihartzunik eman al diote?

Gari Udabe. Bai, izan du oihartzunik. Nik bertako hedabideetatik jakin nuen albistea. Telebista eta irratiaren albistegi nagusiek nazioarteko atalean tartea egin zioten zorigaitzoko gertakariari. Hurrengo egunean prentsak ere bildu zuen. Hemengo egunkari nagusiek, eta baita dohainik banatzen diren *AM* eta *Metro* egunkariak ere. Gerora jarraipenik ez zaio egin. Baina ez da harriztekoa: Iraken gertatzen denaren berri ere tantaka ematen dute hemengo hedabideek. Orokorrean oso gutxi hitz egiten da han gertatzen ari denaz.

Aitor Egileta, bidaiaria

“Denetariko jendea dago leku guztietan, bestela etxera begiratzea besterik ez dugu”

Aitor Egiletak bakarrik bidaiatzeko ohitura du. Duela bi urte, lana eta herria utzi eta munduko txoko ugari bisitatu zituen; tartean, gomendagarritzat jotzen ez diren horietakoak. Bere kronikak eta argazkiak noaua.com webgunean bildu genituen (oraindik ikusgai). Yemengo atentatuak ez du bidaiatzeko duen grina aldatuko.

NOAUA! Yemenekoa entzun zenuenean, zer sentitu zenuen?

Aitor Egileta. Dexente harritu ninduen. Yemeneko berri handirik entzun gabea nintzen gertakizun hau izan arte. Badakigu Afrika eta ekialde hurbileko herrialde askotan liskarrak direla askotan baina normalean barne liskarrak izaten dira eta ez turisten aurkakoak.

N. Atentatuaren ondorioz jakin dugu zenbaitzuk Yemen non dagoen. Akaso hor dago arriskua. Estereotipoetan erortzea eta herrialde oso bat eta herritar guztiak zaku berean sartzeko joera, ezta?

A. E. Ba bai, halaxe da. Besteek gurekin egiten duten modu berean guk ere besteekin gauza bera egiten dugu. Eta tamalgarriena herrialde hauek existitzen direla modu honen bidez jakin behar izatea.

N. Duela bi urte, munduko toki ezberdinak bisitatu zenituen. Kultura eta erlijio ezberdineko herrialdeak eza-



2005EAN, AITOR EGILETAK URTE OSOA EGIN ZUEN BIDAIAZTEN. ARGAZKIAN, INDIKO PUSHKAR HERRI SANTUAN.

gutzeko aukera izan zenuen. Bisitatu zenituen toki horietakoren batean, sumatu al zenuen nonbait okzidentalekiko jarrera txarrik?

A. E. Oso harrera ona izaten dugu normalean. Neurri handi batean pelikulen, telebistaren eta diruaren ondorioak dira hauek. Noiz edo noiz tokatu izan zait baten baten purrustak entzun behar izana, baina oso momentu puntualetan.

Denetariko jendea dago leku guztietan, bestela etxera begiratzea besterik ez dugu.

N. Bidaiari bezala, Yemenen gertatutakoak zure bidaiatzeko modua baldintzatu egingo du, ala ez?

A. E. Ezta pentsatu ere. Aurtengorako ere bidaiaria prestatzen hasia nago. Atentatuak, istripuak, ezbehar naturalak... Makina gertakizun izaten dira mundu guztian eta horregatik ez gara etxean geratuko, ezta herrialde aberatsetara bakarrik bidaiatzera joango.

IMANOL UBEDA _____

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Olar-Goxo
Elitkagutak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

Lanbide Hastapen Ikastaroetan izena emateko garaia da

Zabalik jarraitzen du 2007-08 ikasturteari begira, zenbait hezkuntza eskaintzatan izena emateko epeak. Lanbide Hastapeneko bost espezialitateetako bat ikasi nahi duenak irailera arte du matrikulatzeko aukera. Uztailaren 20ra arteko tartea, eraikinak eta hiri guneak mantentzeko enplegu-prestakuntzan parte hartu nahi duenak.

Eskualde mailako deialdia egin dute Usurbil, Lasarte-Oria eta Andoaingo Lanbide Hastapeneko arduradunek. Ondorioz, bost espezialitatez osatutako eskaintza bateratua prestatu dute. Usurbilen, sukaldaritza eta gozogintza eta ile-apainketa eta edergintza; Andoainen, automobilarren karrozeria eta galdaragintza eta soldadura tailerrak. Ikasturte berriari begira, espezialitate berri bat erantsiko zaie gainerakoei; Lasarte-Orian abian jarriko duten margolaritza tailerra.

16-21 urteko gazteentzat

Bi urteren buruan, gustuko ofizio bati dagokion prestakuntza jaso, enpresatan praktikak egin eta bide batez, eskola graduatua ateratzeko aukera dute. 16-21 adin tartean izan, eskola graduatua eskuratu ez, ikasketak utzi edota langabezia dauzen gazteei zuzendutako eskaintza da. 2007-08 ikasturterako matrikulazioa zabalik dago irailera arte. Harremanetarako telefono zenbakia honakoa: 943 360 465.

ARITZ GORRITI



ILE-APAINKETA IZATEKO IKASTAROA ESKAINTZEN DA LANBIDE HASTAPEN TAILERREAN.

Eraikin eta hiri guneen zainketa ikastaroa antolatu du udal enplegu bulegoak

Hiru hilabeteetako prestakuntza eta beste sei hilerako lan kontratazioa. Bi osagai nagusi horiek ditu eraikinak eta hiri guneak mantentzeko Udalak abian jarritako enplegu-prestakuntza egitasmoak. Irailaren 10ean ekingo zaio, langabetuei zuzenduta dagoen ekimeneko prestakuntza zatiari. Eduki teoriko eta praktikoez uztartutako zenbait modulu eskainiko dituzte; igeltsaritza, iturgintza, pintura, zurgintza, elektrizitatea, arriskuen prebentzioa eta ingurumen sentsibilizazioa. Gabonak arte, guztira 450

orduko iraupena izango dute modulu horiek. Gero, 2008ko urtarrilean Udalak ekainera bitarteko lan kontratazioak bideratuko lituzke, egitasmoan parte hartzen ari direnentzat.

Matrikulatzeko baldintza bakarrak, langabetua izateaz gain, parte hartzeko motibazioa, interesa, prestutasuna eta lanbide horretan jarduteko muga edo eragozpenik ez izatea aski da. Astebete baino ez izena emateko; azken eguna, uztailaren 20a. Horretarako, Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegu Sustapen sailera joan behar da.

ZUBIAURRENEA, LISURBIL

ile apainketa

943361951

mistoa

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Bukatu da, akabo

Ajea nagusi izango da orain, astebete luze iraun duen jai giroa amaitu eta gero. Goizetik gauera, mota, gustu eta adin tarte guztiei zuzendutako ekitaldiez gozatu

ahal izan da. Eta jada, hurrengo Santixabeletarako gutxiago geratzen dela jakina da. Bitartean, ondorengo irudiokin geratu behar.



SANTIXABEL EGUNEAN KAYAK-EAN IBILTZEKO AUKERA IZAN ZEN.



PINTURA LEHIAKETAKO ANTOLATZAILEAK ETA IRABAZLEAK. ARGAZKIA: JOSU ARANBERRI.



AIKO TALDEKOEK DANTZA ESTILO EZBERDINAK ESKAINI ZITUZTEN.



SUKALDEKO TRESNEKIN JOLAS ENTRETENIGARRIAK ERE EGIN DAITEZKEELA IKUS AHAL IZAN GENUEN.



GAZTETXOEK ADI-ADI JARRAITU ZUTEN PATXIN ETA POTXIN PAILAZOEN SAIOA.



IRUDIAN AZALTZEN DIRENEK DIABOLO ETA ZIBA JOKOETAN PARTE HARTU ZUTEN.



PILOTATXOA KOILARAN MANTENTZEN NAHIKOA LAN IZAN ZUTEN.



GURASOEK ANTOLATU ZITUZTEN JOKOETAN GOGOTSU IBILI ZIREN.



UDARREGIKO PLAZATXOAN JARRI ZUTEN TRAMANKULU IKUSGARRI HAU.



DYAK ERRESKATE ERAKUSTALDI IKUSGARRIA ESKAINI ZUEN FRONTOI ATZEAN.



SOKAMUTURREAN JENDE ASKO BILDU ZEN ETA KORRIKA SAIO POLITAK IKUSI ZIREN.



IN SITU TALDEOKAK URDURI BAINA GUSTURA ARITU ZIREN; EUREN LEHEN EMANALDIETAKOA IZAN ZEN.



NAFARROAKO SKALARIAK TALDEAK KANPOKO JENDE ASKO ERAKARRI ZUEN.



OILASKO BILTZAILE ASKO ATERA DIRA AURTEN. GERO, PARRANDA BATEAN IBILI ZIREN DENAK.



GAZTETXOAK ERE OILASKO BILTZAILE LANETAN IBILI ZIREN. FRONTOIAN BAZKALDU ZUTEN.



BTK TALDEKODEN ERRITMOEKIN AZKAR ALAITZEN DA KALEKO GIROA.



JOSU MARTIAK IRABAZI ZUEN HURBILAGOK ANTOLATU ZUEN BALKOI LEHIAKETA. 500 EURO ESKURATU ZITUEN.



HIRUKO UZTARRIKO IDI-DEMAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN. JENDEA ERRUZ BILDU ZEN DEMA-PLAZAN.



ERAKUSTALDIA ETA GERO, IZERDITAN BLAI AMAITU ZUTEN ZANPANTZARREK.



ASKATASUNA PLAZAKO TXOZNATAN BANATU ZEN ZIKIRO-JANA.



GAZTE EKIMENEKOAK ARTZABALGO TXOZNA-GUNEAN BAZKALDU ZUTEN.



ERREPRESALIATUEN OROIMENEZKO EKITALDIAN, ESPETXEAN DIREN HERRITARRAK OMENDU ZITUZTEN.



IKUSTEKOA IZAN ZEN BIZKAITIK ETORRI ZEN TALDE HONEK ESKAINI ZUEN SAIDA. APARTA.

Eskubaloi jokalari gazteak Granollersen

Usurbil Kirol Elkarteko kadete mailako bi eskubaloi taldeak "Granollers Cup 2007" nazioarteko eskubaloi txapelketan izan ziren ekainaren 27tik uztailaren 1a bitartean. Mundu osoko herrialde desberdinetatik etorritako eskubaloi jokalariek bildu ziren bertan, eta herriko neska-mutilak hauekin lehiatzeko aukera izan zuten.

Gustura ibili omen ziren herriko kadete mailako bi eskubaloi taldeetako neska-mutilak Granollers aldean. Santixabelen atarian izan ziren bertan, eta hainbat neurketa jokatzear gain, beste herrialdeetako gazteekin hartu-emanaz izateko aukera izan zuten. Inaugurazio ekitaldian zeuden 20 herrialdetako 20 bandera, baina usurbildarrek beste bat jartzea ere lortu omen zuten, ikurrina hain zuzen ere.

Kirol arloari dagokionez, nesken taldea final laurdenetara iritsi zen. Ligaxkan 4. postua eskuratu zuten eta final zortzirenetara sartu ziren bigarren aukerako partida irabazi eta gero. Ondoren Brasilgo Sao Paulo taldea gaititu zuten final zortzirenetan eta TV Ruchheim talde alemaniarren aurka 17-15 galdu zuten final laurdenetan. Mutilen taldeak, berriz, ezin izan zuten azken fasera pasa. Garaipen eta berdinketa bana lortu zuten, beste 4 neurketak galduaz.

JOSU ARANBERRI



Amaitu da Usurbilgo XXV. Pilota Txapelketa

Santixabel egunean jokatu ziren herriko pilota txapelketako finalak. Jubenil mailan Narbarte goizuetarra eta Esnaola izan ziren irabazle, Zumarragako Kina eta Biain bikotearen aurkako lehian. Eñaut Esnaolak txiki-txikitatik jokatu izan du herriko pilota elkartean, baina gaur egun Hernaniko taldean dago. Nagusien mailan, berriz, Añorga Kirol Elkarteko Urmeneta eta Aranaldek lortu zuten txapela Ojuel eta Txapartegiri 22-11 irabazi ondoren. Narbarte eta Aranalde izendatu zituzten amaieran finaleko pilotari onenak.



Puntutakako gidabaimenak urtea bete du

